

# MAILLOPE

## GUREAN KONTSUMITU, GUREAN GOZATU

281

2020ko ekaina

TOKIKOM



Jarrai ezazu  
Maillope Aldizkaria  
Facebook orrian!

**Eneko Oreja Altuna**

Ekainaren 23an, 9 urte.  
*Aupa txapeldun! Zure alaitasun horrekin mendi tontor eta bihotz guztitara iristen zea!!! Urte askotako Eneko! Muxu haundiet etxeko guztin partez!!!*



**Goreti Estanga Jareño**

Ekainaren 16an, 7 urte.

**Zuriñe Estanga Jareño**

Ekainaren 30an, 10 urte.

*Zorionak Bikote!! Ongi pasa familiarekin zuen urtebetetze eguna. Segi sorgintxoak izaten. Muxu pottolo etxekoan partez.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
 Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**AURRERA  
 TABERNA  
 ARALAR, 15  
 948 60 47 24**


**TAXI  
 SOROA  
 609 168 217  
 Bederatzi plaza**

 **ALIPROX**  
 Lekunberri  
*janaridenda*  
 hamabostaldiro  
 eskaintza bereziak

**Iñigo Garaioa  
 MARGOLARIA**  
 **696 658 288  
 LEKUNBERRI**

**M. Angeles  
 Urrizalki  
 iragarkiak,  
 berriak,  
 eskalak...**  
**Diario Vasco eta Diario  
 de Navarrako  
 Korrespontsala**  
**948513056  
 699179437**

 **Atabal**  
 okindegia  
 Era askotako  
 ogiak eta gozoak  
 Etxez etxe  
 banatuko dugu  
 Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE  
 harategia**  


**BERTAKO  
 HARAGIA**  
 Txistorra, txorizoa,  
 saltxitxak,  
 sukaldatutako platerak.  
 Etxera eramateko  
 zerbiztua ere eskeintzen  
 dizugu.  
 Antigua Kalea N°7  
 31890 BETELU  
 Telf: 948 51 30 88  
[maiteharategia@hotmail.com](mailto:maiteharategia@hotmail.com)



02 KUXKUXEAN: Ekaineko zorion agurrak.

04 HIZKI-ZOPA

06 IRITZIA

08 ELKARRIZKETA: Jose Luis Zumetaren omenez.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 BEREZIA: Koronabirusa.

27 KIROLA

28 HITZ ASPERTUAN

29 ELKARRI MOKOKA

30 MARKATU TXIKIA

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzi eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak. L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Pedro Saralegi, Ana Arraras, Gabenara, Iñaki Gonzalez, Kantina, Oihana Goikoetxea, Camino Garralda, Felix Otegi, Supriñu, Beti Kozkor, AEK, Txitxi Orbegozo, Irene Matxinandiarena eta Aitziber Otamendi.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra



#MailoperekinEtxean

EMAN DIEZAI OGUN

# Kolore pixka bat

EGUN HAUEI!

*Azken asteetan, gure egunerokoan  
barneratu ditugun kontzeptuak dira  
hauek guztiak.*

*Hizki-zopa honetan aurkitzeko  
gai izanen zara?*

- ETXEALDIA
- MASKARA
- BERROGEIALDIA
- ARNASGAILU
- IMMUNITATE
- KARGA BIRIKO
- KONFINAMENDU
- PANDEMIA
- TEST AZKAR
- XABOIA
- KUTSATZE
- TELELANA
- TERMOMETROA
- ESKULARRU
- TXERTO

W	P	P	A	N	D	E	M	I	A	U	V	Y	T
O	F	R	D	D	P	M	A	S	K	A	R	A	V
T	E	P	M	K	U	T	S	A	T	Z	E	J	E
X	S	P	O	A	R	N	A	S	G	A	I	L	U
E	P	K	X	E	X	A	B	O	I	A	R	P	A
R	G	K	O	N	F	I	N	A	M	E	N	D	U
T	K	A	R	G	A	B	I	R	I	K	O	I	M
O	T	E	S	T	A	Z	K	A	R	U	Y	K	O
K	J	T	E	L	E	L	A	N	A	C	B	C	N
B	E	R	R	O	G	E	I	A	L	D	I	A	S
E	T	X	E	A	L	D	I	A	S	M	Q	V	T
I	M	M	U	N	I	T	A	T	E	L	H	U	A
G	G	S	T	E	R	M	O	M	E	T	R	O	A
E	S	K	U	L	A	R	R	U	B	J	N	M	N



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Orduategia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



## PATXI RUIZ PRESOAREN ALDEKO ELKARRETARATZEA

Patxi Ruiz, Txantreako preso politikoa gose greban da maiatzaren 11z geroztik. Joan den maiatzaren 17an babesa adierazteko elkarretaratzea egin zen Lekunberrin. Bere integritate fisikoaren segurtasuna bermatzea eta euskal presoen herri-ratzea eskatzen du besteak beste.



## MEZAK ONLINE SAN MIGEL SANTUTEGITIK

Joan den hilaren 17an San Migel Santutegian mezak ospatzen hasi ziren. Segurtasun distantzia mantentzeko eta bestelako neurriak kontuan hartzeko argibideak eskaintzen hasi dira. Hala ere ohi baino jende gutxiagok izanen du joateko aukera eta beraz, mezak internet bidez eskaintzen hasi dira.



## LARRAUNGO ERRALDOIEN AURKEZPENA

Larraungo Erraldoi eta Kilikien Konpartsako lau erraldoiak prest daude jada eta aurki aurkeztuko dituzte. Koronabirusa dela eta bertan behera gelditutako entseguei heldu diete berriro. Hala ere, ezin jakin konpartsak aurreikusita zituen lehen emanaldiak noiz eskaini ahalko dituen.

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Pello Goikoetxea (Uztegi)

Doinua: Kanta dezaten txoriak eta

*Aralar mendin sortu zenetik  
malkorra edo harria  
geroztik hortxe dabil larrean  
zorioneko ardia.  
Orain arriskuan dabil ordea,  
piztu dezagun argia  
gure oinarria euki ezean  
ezin eraiki herria.*

*Berrogeialdia hau  
denontzat ezberdin,  
kalean estuago  
ta lasai baserrin.  
Benetan ematen dit  
neri gauza batek min  
ezin garen ibili  
festan elkarrekin.*

### Garikoitz Etxeberriarentzako puntua:

Gogoratzen ahal dituk  
Larraun eta Araitz.

### Oinak:

Gorriti, poliki,  
urruti, aitzaki.



#MailoperekinEtxean

## 5G-A GELDITU!

Ez gara garai errazak bizitzen ari, baina badirudi kaos honen helburua ordena dela, baina ez naturala, eta are eta gutxiago gure osasuna eta ongizatea bermatzen duena. Kaos honen barruan, pertsona asko beldurrean murgilduta bizi direlarik eta beste asko pertsona askori laguntzan (mediku, erizain, abeltzain, nekazari, banatzaile, etab...) ari direlarik, hauen artean, etekinak eta interes pertsonalak pertsonen ongizatearen gainetik jartzen ari direnak badira ere.

Gai askoren inguruan hitz egin genezake honen harira, baina, orden ez natural horren barruan gai oso garrantzitsu baten inguruan aritzeko zuzentzen gara oraingoan zuengana, 5G-a.

Espainiar Estatuak 2018-2020 5G Plan Nazionalarekin batera, teknologia hau, pixkana-pixkanaka gure herrietako txoko guztietara iristea nahi du. Baina teknologia honen osasunarentzat eta ingurugiroarentzat izan ditzakeen kalteak handiak dira, horrela salatu dute hainbat erakundeek, *Ecologistas en Acción* kasu, eta Fernando Martinez Marugán berak ere, espainiar Estatuko Arartekoak.

Munduko hainbat herrialdeetan 5G-a gelditzen ari dira (Brusela, Glastonbury, Frome, etab.), pertsonen osasuna eta ongizatea bermatuta izan arte eta bidez batez, Europar Batzordeko 2011ko 1815 ebazpenak esaten duena, prebentziorako eskubidea alegia, aurrera eramanez.

204 herrialdeetako zientzialari, mediku eta ingurumenaren inguruko erakunde eta talde eragile ezberdinek orain dela gutxi manifestu bat kaleratu zuten hau adieraziz: *"Guk, beherago sinatzen dugun 204 herrialde ezberdinetako zientzialari, mediku eta ingurumenaren aldeko erakunde eta talde eragile ezberdinetako partaideak, premiaz eskatzen dugu 5G hariarik gabeko sare hedapena bertan behera geratzea, 5G sateliteen sarea berraztertzea. 5G-a ezartzeak irrati-frekuentziako erradiazioetara esposizioa izugarri handituko du eta, orain arte martxan dauden sareen ( 2G, 3G eta 4G ) erradiazioari gehituko zaio. Irrati-frekuentzien erradiazioa ingurugiroarentzat eta gizakiarentzat kaltegarria dela argi frogatu da. 5G-aren hedapena gizateriarekin eta ingurugiroarekin egingo den esperimendu bat da eta eskubide internazionalaren ikusipuntutik, gizateriaren aurkako krimena eta bidegabekezia bezala definitu daiteke".*

Urteak daramatzate zientzialari eta mediku askok erradiazioen inguruko arriskuaz informatzen eta ohartarazten. Baina gure erasotasunak atzera begira eta arduratsu ez jokatzeko eragiten digu. Argi duguna da, argi eta garbi azaldu baitute, behin eta berriro, gure agintarien hitzak ez dutela askotarako balio, enpresa handien eta beraien interesen agindupean baitaude. Bada garaia, guk geuk, lekukoa hartzeko eta gure osasuna eta ongizateaz arduratzeko. Horretarako hitzak eta ekintzak beharko ditugu. Oraingoan, udalak informatzen ari gara. Ekimen hau Oñatiko lagun batzuek hasi dute eta hango udaletxean kezka handia sortu da eta heldutasunez eta gogoz gaiari eutsi diote, ondorioz, beste udal batzuek ere arreta ipini diote eta informazioa eskatzen hasi dira. Momentuz, guk Lekunberriko Udalariko dagoeneko informazioa igorri diogu eta nahi duen beste edonorekin ere

berdina eginen dugu. Helbide honetan jar zaitezke harremanetan: [egoitzgarro@yahoo.es](mailto:egoitzgarro@yahoo.es)

Teknologia berrien aldekoak gara, baina hauek erabiltzen ere ikasi behar dugu eta lehenik eta behin ingurumenaren, eta gure seme-alaben, aitona-amonon eta herritar guztien osasuna eta ongizatea bermatu behar dugu. Irrati-frekuentzia hauek minbiziarekin, nerbio-sistemako arazoekin, ugalketa arazoekin, buruko minekin eta beste arazo askorekin lotzen dira, beraz, gaiari serio heltzeko momentua dela ematen du, 5G-ak hauen kopurua izugarri handituko baitu. Sortu dezagun guk nahi dugun errealitatea, guztiontzako onuragarria dena eta ez gutxi batzuentzako errentagarria.

Itzalak argia ekartzen du berarekin batera. Gure esku dago zeinetan ipini arreta, itzalean edo argian. Gizartean bizitzen ari den ez ohizko egoera arraro eta bitxi honek gauza askoren inguruan hausnartzeko aukera eman digu eta era berean, argi eta garbi geratu dira, alegia, oso agerian, benetan beharrezkoak diren gauzak, pertsonak eta sektoreak zer diren. Har dezagun ba lekukoa eta gure oraina eta etorkizunaz ardura gaitetzen, gure gizartearekiko konpromisoa har dezagun eta denok, edo gehienok behintzat, hain beharrezkoa ikusten dugun aldaketarako bideari ekin diezaiogun.

Egoitz Garro

## ETB1-EN BOIKOTA

Hilabete eta erdi baino gehiago pasatu direnean konfinamendua agindu zutenetik, harrigarria eta etsigarria da ikustea egunero, ETB1ek nola erabiltzen dituen "kuarentena/koarentena" eta "maskarilla" hitzak behin eta berriro, batere lotsagorritu gabe.

Nik uste dut, jakin nahi izan duen kristau orok izan duela aukera bikaina ikasteko nola ez diren esan behar bi hitz horiek euskara jasoan, alegia, "kuarentena/koarentena" eta "maskarilla", baina, hara non, auskalo zer arrazoiengatik, ETB1ek nonbait okitu nahi omen gaitu ditxosozko bi hitz desegoki eta gogaikarri horiekin, eta, hau, ez dut asmatu nik, baizik eta Euskaltzaindiak. Norbaitek ez badu sinisten, begira dezala haren Hiztegiaren, eta, gainera, duela aste pare bat-edo, Euskaltzaindiak berak sare sozialetara hiztegitxo espezifiko bat bidali zuen koronabirusaren gainean, euskatzale guztiok, eta, batez ere, kazetariak, esatariek eta abarrek jakin dezaten zein hitz erabil daitezkeen eta zeintzuk ez, gai hauetan.

Eta ikusitakoak ikusita, nik zera galdetzen dut: zer gertatzen ote da ETB1ekin, agian ez da euskaltzalea izanen? Ezjakina da? Euskaltzaindia bera baino jakintsua goa al da? Trakeski jokatu nahiko du behin eta berriro? Ala boikot egin nahi ote dio Akademiari? Desinformatu nahi izanen gaitu apika? Espainiko hiztegiko hitzek gehiago balio ote dute Euskaltzaindiarenekin baino? Arrazoiak zein diren jakin nahi nuke!

Bueno, ba, ikusiko dugu hemendik aurrera onerako aldaketaren bat egiten duten ala ez.

Xanti Begiristain Madotz., Auritz

## EDATEKO UR ESTAZIOAREN AZPIEGITURA KONTRATATZEKO GARAIAN LEKUNBERRIKO UDALAK ERABILI ZUEN PROZEDURAZ

Maiatzeko hilabete honetan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren ebazpena jaso dugu Ertzila Ur Partzuergoa osatzen dugun kontzejuok (Etxarri, Arruitz, Iribas, Mugiro eta Alli) eta Larraungo Udalak. Zehazki Iribasen dagoen edateko ur estazioaren kudeaketak eragin duen auzibidearen epaia. Epai honek arrazoia eman digu berriro ere, eta agerian utzi du Lekunberriko Udalak modu irregularrean eman ziola Hidroambiente enpresari planta horretan mantentze lanak egiteko kontratua.

Nafarroako Administrazio Auzitegiak ere antzeko epai bat atera zuen lehenago, eta kontzejuok eta Larraungo Udalak arrazoia dutela ebatzi zuen, baina Lekunberriko Udalak helegitea jartzea erabaki zuen Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Erakunde horrek Lekunberri Udalarari eman zion arrazoia, esanez kontzejuok ez dutela eskumenik Nafarroako Administrazio Auzitegian salaketa jartzeko. Orain, kontzejuok eta Larraungo Udalak epai horri helegitea jarri ondoren, auzitegiek berriro ere arrazoia eman digute.

2018. urtean, Partzuergoko kontzejuok eta Larraungo Udalak helegitea jarri genion edateko ur plantarako egin nahi zen kontratazio pleguari, gure ustez ez baita Lekunberriko Udalaren eskumena altako ur horniduraren zerbitzua kudeatzea, Ertzila Ur Partzuergoarena baizik, eta zerbitzu horretan sartzen dira beharrezko obrak egitea eta mantentzea, ura hartzeko instalazioak egitea, ura eramatea, eta ura tratatzeko eta biltegitatzeko plantak kudeatzea, horixe esaten baitute Partzuergoaren estatutuek. Kontzejuok eta Larraungo Udalak ez ezik, Lekunberriko bi zinegotzik ere jarri zuten helegitea kontratazio plegu horren aurka.

Hauxe dio berriki iritsi zaigun epaiak: *“Lekunberriko Udalak beretzat hartu du eskumena, baina ongi daki eskumen hori Partzuergoari dagokiola, bera partaide den Partzuergoari”*.

Partzuergoko kide garen kontzejuok eta Larraungo Udalak ontzat jotzen dugu epaia, ETAParen funtzionamendua nola kudeatu erabakitzeko eskumena Partzuergoari aitortzen diolarik. Berretsi egiten duelako Ertzila Ur Partzuergoaren eskumena dela altako ur horniduraren zerbitzua zuzenean kudeatzea.

Lekunberriko Udalak helegitea jartzeko aukera du epai honen kontra, baina Ertzila Ur Partzuergoaren lehendakari eta Iribasko alkate naizen aldetik, iruditzen zait garrantzitsua eta beharrezkoa dela Ertzila Ur Partzuergoa osatzen dugun kide guztiok elkarrekin lan egin dezagula (Lekunberriko Udala, Alli, Arruitz, Etxarri, Iribas, Mugiroko kontzejuok, Larraungo Udala eta Nafarroako Gobernuak) eta elkarrizketa erdigunean jar dezagula arazoak konpontzeko. Zerbitzu hobea eskaintzeko pausoak ematea dagokigu, herritarren interes orokorrari emanaz lehentasuna.

Camino Garralda  
(Ertzila Ur Partzuergoko Lehendakaria)

## ARAZO BAKOITZAK, AUKERA BERRI BAT DAKAR

Komunikazioaren gizaratean, hedabideen boterea handia da. Albistea zer den eta zer ez den erabakitzeko boterea, besteen artean. Bankuek, multinazionalak eta kapital handiek azken hamarkadan hedabide mordo bat bereganatu dituzte mundu osoan eta batzuetan, aurpegira barre egiten digute.

Nahasmen garai hauetan, bizitzen ari garena ulertu eta gure buruak kokatzea zaila egiten da. Datu eta araez beteriko saturazio mediatikoak, beldurrez beteriko mozkorraldi moduko batean sartu gaituzte. Komunikabide handiei begira jarraituta, lasto artean orratz bat aurkitzea bezain zaila da egia topatzea. Denbora aurrera joan ahala ordea, laino artean bada ere, gero eta argiago ikusten dugu gure inguruan gertatzen ari dena.

Birusa, kapitala eta indar armatuak erabiliz besteak beste, mundu mailako azken urteetako ofentsiba burgesik handienetakoa jasaten ari gara. Gure burua arriskuan jarritzeko besteentzako etekina sortzera lanera joan beharra, zentzugabeko isun eta jipoiak, eraikin hustuketak, itolarri ekonomikoa, bakardadea, tratatu txarrak... gero eta ageriago daude. Une batetik bestera eskuak lotuta sentiarazi gaituzte, baina poliki-poliki beldurra galduz joango gara.

Hau luzerako doanez, inpotenziari gailentzen utzi eta irtenbideak norbere kabuz bilatu ordez; erantzuleak seinatu, amorrua langileok antolatzeke baliatu eta maitasunez mundu justu bat eraikitzen hasteko ordua dugu. Dauzkagun baliabide apur bezain kementsuekin, printzakideok hori indartzen saiatuko gara. Ez ezazu zure arazoa isolatu, antolatu! Kontatu gurekin.



Printza

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



## Zumeta, gure artean jarraituko bazenu hobeto...

*Jose Luis Zumeta margolaria joan den apirilaren 22an zendu zen. Jaiotzez usurbildarra izanik ere, lotura estua zuen Araitz ibarrarekin eta bertako herritarrekin, urte asko baitira Gaintzako Errotetxea erosi eta bere bizitokietako bat gehiago bihurtu zuela.*



81 urte bete berriak zituen eta margotzen jarraitzen zuen Usurbilgo bere tallerrean. Euskal artearen sektorean margolari handia zen, erreferenteetako bat. Espainiako Gerra Zibilaren ondorenak sortu zituen artista handi horietako bat.

Espresionismo abstraktua, arte figuratiboa... artean jantziak ez garenontzat kolore biziko artelan alaiak egiten zituen margolaria zen. Mundu osoko txoko

asko eta asko ezagutu zituen eta izen handiko galeria garrantzitsuetan zintzilikatu zituen bere margolanak eta baita hainbat sari irabazi ere. Baina bere ibilbide profesional oparo horretako handitasun horrek, ez du halako garrantzirik bera gertutik ezagutu zutenentzat. Zumeta beste gauza askorengatik zelako handi Txitxi Orbegozo, Juan Manuel Garmendia "Lazkao" eta German Elordirentzat "Pepe".

Txitxi Orbegozo tolosarra 1998 inguruan etorri zen gurera bizitzera eta garai hartan ezagutu zuen Araitzen Zumeta. Denborarekin lagun onak egin ziren eta pertsona nahiz artista bezala aski estimatua zuen Txitxik. Garai batean artista ugari bizi ziren inguruan, Carmelo Ortiz de Elgea, Iñigo Altolagirre, Angel Sandimas... Juan Gorritiren etxea izaten zuten maiz biltoki.



Lazkaok eta Peppek ere orduan ezagutu zuten Zumeta. Lazkao: *"Beteluko ostatuan ostiralero mus txapelketa izaten zen. Han ezagutu nuen eta ondoren, pixkanaka harremana estutzen joan zen"*. Euren kuadrillako lagun bat gehiago bihurtu zen arte.

Atalloarrako lokalean zuen tailerra eta hemengo parajea eta lasaitasun gustatzen zitzaizkion. Margotzea ofizioa ez ezik bere pasio handiena zen. Eta gogokoen zuen hori egitetik bizitzeko aukera izan zuen, talentua.

"Jose Luis", "Zumeta", "Zume"... Peppek "Tintoretto" ere deitzen zion maiz, modu maitakorrean. Pepe: *"Pintorea zen eta tabernan elkartzen ginean ardoa edatea zuen gustuko eta behin hitz-jokoarekin brometan hasi eta ordutik tarteka Tintoretto esaten genion"*.

Arima libre zuten pertsona zela diote bere lagunek, zentzuduna, hitz onekoa, hizlaria, azkarra eta kuriozosa. Txitxi: *"Edozerk pizten zion jakin-mina. Umeek izan ohi duten kuriositate bera zuen, ase ezina zen. Ez zuen barneko ume hori inoiz galdu. Gainera, pertsona baikorra zen, beti laguntzeko prest zegoena. Profil ezberdineko jendearengana egokitzeko gai zen, berdin zuen zein arlo sozial, ekonomiko eta kulturekoa izan"*.

Hainbat eta hainbat erakusketen irekieretan izan ziren Pepe eta Lazkao, Iruñean, Zarautzen, Bilbon... Peppek gogoan du, halakoetan ahal zuen bezain azkar hurbiltzen zela eurengana. Pepe: *"Oso jatorra zen eta bizitasuna sumatzen zitzaion arren,*



German, Txitxi, Zumeta eta Lazkao beste hainbat lagunekin batera, Usurbilen, Zumetaren 80. urtebetetze eguna ospatzen



*pertsona lasaia, umila eta eskuzabala, beti aurreratzen zen tabernako erronda ordaintzera"*.

Kirolzalea ere bazen eta pilota partida asko eta askotara joan zen bere kuadrillako kideekin. Lazkao: *"Beti berdina egiten genuen: lehenik poteoa, ondoren bazkaria, mus partidaren bat jokatu eta frontoira. Eta iluntzean etxera. Behin Bilbora joan ginen. Han bazen taberna bat beti joaten ginena. Bertako paretan koadro asko zeuden eta tartean Zumetak gaztetan margotu eta tabernariari oparitako koadro txiki bat. Egun arten tabernan ginela koadro hura faltan sumatu nuen eta Zumetari esan nion: -Zure koadroa falta da!-. Zerbitzariari galdetu eta esan zigun nagusia*

*jubilatu egin zela eta koadroa eraman zuela. Garrantzitsuena eraman zuen!!". [Kar, kar].*

Emoziotik margotzen zuela dio Txitxik. Sentitzen zuenaren arabera margotzen zuela. Margotzen hasi eta ezinezkoa zitzaion gelditzea, errealitateetik alde egiten zuen, kontzentrazio sakon batean murgiltzen zen eta gaitasun handia zuen inspirazio momentu horietan bere baitan sartzeko. *"Deabruak hartuta balego bezala margotzen zuen, baina harrigarria zen hasierako kaos txiki horrek lana bukatzen zuenean hartzen zuen zentzua"*.

Behin hala esan omen zion Zumetak Txitxiri: *"Bezere bat etorri zait eta koadroak ikusterakoan negarrez hasten zen hunkituta eta nik ez nekien zein*



Zumetak hainbat eta hainbat euskal proiektutan parte hartu zuen. Arg: Durangoko Azoka.

*aurpegi jarri!*". Ez zen kontziente berak sortzen zuenak halako emozioa transmititu zezakeenik.

Margotzeari dagokionez, Zumetarentzat ez zen mugarik existitzen. Margotzeko zuen gaitasuna, kolore edo material zehatz baten faltaren gaitetik zegoen. Edozerekin margotzeko gai zen. Txitxi: *"Hatz erakuslearekin margotzen ariko balitz bezala aritzen zen keinutan maiz eta nik azpian iPad bat jartzeko esaten nion, hala bilduta gelditu zitezten. Hainbestetan errepikatu nion azkenean erosi egin zuela. Lehenik nik ikasi nuen erabiltzen eta ondoren, berari irakatsi nion. Ez zitzaiola gehiegi gustatzen esaten zidan, baina handik pare bat hilabetetara, osasun ezbehar bat izan zuen eta hilabetez egon zen ospitalean ingresaturik. Bertatik margo digitaleko erakusketa oso batekin atera zen, 70 urte baino ge-*

*hiagorekin. Pentsa!*". Ez zuen beldurrik gaur egungo azken teknologiak probatzera. Horietako asko Txitxiren eskutik ezagutu zituen.

Margotzeko erraztasun hura ongi gogoan du ere Lazkaok: *"Behin Baraibarren izan ginen afaltzen, Ladis Galarzaren erretegian. Afaltzen aste-koak ginen eta mahaian mahai-zapi zuri-zuria. Lehen platera iritsi zenerako arkatx batekin nire aurpegia marraztu zuen momentu batean. Ladis platerekin etorri zenean harrিতuta gelditu zen!"*. [Kar, kar]

Bere lanaz kuadrillako lagunekin gehiegi hitz egiten ez bazuen ere hainbat serigrafia eta margolan oparitu zizkien. Bere eskuzabaltasunaren adibide. Pepe: *"Tarteka esaten zuen ez zuela gehiago saltzeko beharrik, bazuela nahikoa bizitzeko!"*.

Halakoxea baitzen Jose Luis, pertsona arrunta, baina era berean ikaragarria. Txitxirentzat bere idoloa zen eta berari ere hala esaten zion maiz. Txitxi: *"Berak esaten zidan ez zuela ulertzen zergatik esaten nion hori, baina bizitzan ezagutu ohi ditugun pertsonen artean izaten dira gauzak egiteko moduarengatik oso gustuko dituzun zenbait. Bizitza filosofia miresgarria zuen, inbidia ematen zidan maiz berak bizitzeko zuen lasaitasun hark"*.

Araitzera etorri zen lehen negu hartan, hotz handia pasa zuela eta neguak eguzkiak gehixeago berotuko zuen beste nonbaiten pasatze-

**IORTIA** EL INCA ESTETIKO HORTZ ESTETIKA

Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es

ko erabakia hartu zuen. Afrikan, Hego Amerikan eta Asian ibili zen. Motxila batekin joaten zen lekuak ezagutze-  
ra. Hamar urtez horrela ibili eta gero, Buenos Airesko San Telmo auzoko apartamentu bat gustatu zitzaion eta erosi egin zuen. Azken urtetan bertan pasatzen zituen neguko hilabete hotzenak. Ez zen geldi egoten. Txitxi: *"Bizitza ideala zuen, neguak eguzkitan pasatzen zituen, etxea zuen han eta hemen, tailerra berriz Usurbilen... Berari gustatzen zitzaion bizitza diseinatu zuen"*. Lazkao: *"Askotan esaten zigun nahi izanez gero. Buenos Airesen etxea geneukala eta joateko, baina hemengo lanak utzi eta hara nola joanen ginen ba!"*.

Izugarri gustatzen zitzaion karta eta punteriazko jokoetan ibiltzea ere, galtzea ez horrenbeste. Pepe: *"Galtzen zuenean haserretu egiten zen, baina berehala pasatzen zitzaion"*. Urte askotan, tarteka Txitxi eta Iñigo Altolagirrekin batera, hurrekin muralak egin zituen, Kultur Astea zela, Euskararen Eguna zela... Izugarri gozatzen omen zuen hurrekin margotzen eta jendea margotzera ausartzen zela ikustean.

Urte luzez Araitz izan zen bere bizitokia, arratsaldero Usurbilgo tailerrera joaten bazen ere eta neguan kanpora. Ez zen gelditzen. Azken bost urteotan Donostian bizi zen bere familiarengandik gertuago, baina edozein egunetan etortzen zen gurera, lagunengana.

Azken hamazazpi urte hauetan hilero, azken asteartean, afaria egiten zuen Txitxi eta beste hainbat lagunekin. Araitzera etortzen zenean beti hartzen zuen tartea, Lazkao, Pepe eta gainerako lagunekin mus partidaren bat jokatu eta ardo batzuk hartzeko. Artista handia izanik ere, bizitzako momentu sinpleez gozatzen zekien.

81 urte izanik ere fisikoki oso indartsu zegoela diote denek. Horregatik inork ez zuen espero bere heriotza horren goiz. Ezustean harrapatu ditu denak. Pepe: *"Hurrengo pilota partida noiz ikusteko aukera izanen genuen hitz egiten ibili ginen egun batzuk lehenago"*. Lazkao: *"Ongi*

*bizi izan da amaierara arte!"*. Txitxi: *"Gustatzen zitzaiona egiten bizi zen eta azken urte hauetan bere bizitzako garairik zoriontsuenak izaten ari zirela ere aitortu zidan. Umore ironiko-inteligentea zuen. Behin baino gehiagotan, norbait hiltzen zenean aipatzen zuen: -Jendeak zer-nolako gauzak esaten dituen eta a zer esaldiak idazten dituzten hildakoen omenez-. Norberak bere esaldia aurrez erabaki behar zuela uste zuen eta berak argi zuen bera hiltzen zen egunean zer jartzea gustatuko litzaiokeen: Tabernan egonen banintz hobeto"*.

Eta Txitxi bere hitza bete zuen Koronabirusak eragindako etxealdiaren erdian bere lagun-minaren heriotzaren berri jaso zuenean. Gaintzako Errotara joan, ardo botila bat ireki, kopa bat bete eta pintzela bertan jarri zion eta hala idatzi zion etxe atariko alfonbratxoan: *"Preferiría estar en el bar"* (Tabernan egonen banintz hobeto).

Angel Sandimasek Jose Luis Zumetarekin batera Zumetak margotutako "Gernika" oinarri hartuta 3D formatuan egindako ikus-entzunezkoa ikusgai:



Txitxi Orbegozok Zumetari emandako agurra:



Pepe eta Lazkao Zumetaren omenez topa egiten. Arg: Labrit.



Zapore gozoa utzi du Zumetak Araitzen. Lazkaok eta Pepek lagun bat gutxiago izanen dute pilota partida horietaz gozatzeko, baina berarekin bizitakoengatik topa egiten jarraituko dute. Eta Txitxi bere alboan ikasitako guztiari zukua aterako dio. Txitxi: *"Zume ezagutu zutenei nolabait eragin die berak zuen izaerak eta bizitza filosofiak. Denoi eman digu zerbait. Niretzako mentore handi bat izan da!"*.



## MITXAUSENEAN BERRIRO ERE LIBURUAK ITZULI EDO HARTZEKO AUKERA

Mitxausenea Kultur-etxeak bere atea ireki ditu berriro. Hala ere, oraingoz 09:00etatik 15:00etara zabalduko da eta liburuak itzuli eta maileguan hartzeko aukera baino ez da egonen. Eta horretarako beharrezkoa izanen da aurrez abisatzea 948 604 582 telefonoa deituta edo [mitxausenea.kultura@gmail.com](mailto:mitxausenea.kultura@gmail.com) e-postara idatziz. Momentuz, erabiltzaileek ezingo dute bestelako zerbitzurik erabili.

## PINTXO TXAPELKETA ARRAKASTATSUA DISTANTZIAN



Eleni Tome beteluarra zenbait astez ile-apaindegian lanean aritu gabe ibili zen eta etxealdian zela bururatu zitzaion ideia. Ostatuak itxita eta pintxo-potearen faltan, pintxo txapelketa antolatzen hasi zen. Hasieran bizilagun gertukoekin baino ez zuen egiten. Baina ondoren sare sozialen bitartez gero eta parte-hartzaile gehiago batu dira asteroko txapelketa. Facebooken bitartez etxean prestatzen duzun pintxoari argazkia atera eta bidali baino ez duzu egin behar Aitzberri Zentroaren kontura. Txapelketa alarma egoeraren amaierarekin batera emanen zaio bukaera. Eta puntu gehien irabazi dituzten hiru pintxo egileek sariak jasoko dituzte.

## NAFARROAKO PARLAMENTUARI ETA GOBERNUARI EGINDAKO ESKAKIZUNA

Mailope Aldizkariak bat egin du Nafarpres Elkarte-kide diren gainerako aldizkari eta egunkariekin Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari tokiko prentsari betetzen duen eginkizuna aitortu eta babes dezaten. Besteak beste eskatzen diegu, kontuan har gaitzatela lurraldeko prentsaren maila berean Nafarroako Gobernuak eta haren departamentuek hedabideetan egiten duen publizitate kanpainetan. Eskualdeetako merkataritza eta enpresa txikiak suspertzeko tresna ere bagarelako.

## EMAN IZENA AEK EUSKALTEGIAN!



Larraungo AEK euskaltegiak datorren ikasturteko aurrematrikula epea zabaldu du. Eskaintza berezi batekin gainera: %5eko deskontua, ordainketa malguagoa eta lehenetsia. Eman izena uztailaren 8a baino lehen [www.aek.eus](http://www.aek.eus) webgunean edo AEKren edozein euskaltegian. Aurrematrikula online egiteko aukeraz gain eta konfinamendutik ateratzeko prozesuaren bilakaeraren arabera, las-ter jakinaraziko dute aurrematrikulak euskaltegian bertan egiteko epealdia.

## MAILOPEKO BAZKIDEENTZAKO OHARRA:

Mailope Aldizkariako bazkideen zerrenda eguneratzen gabiltza eta zenbait arazo tekniko izan ditugu. Beraz, bazkidea bazara, eskualdetik kanpo bizi bazara eta ez baduzu maiatzeko alea jaso jakinarazi iezaguzu mesedez (638 652 339 / [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)).

Gogoratu hilero Mailope online irakurtzeko aukera ere baduzula [www.mailope.eus](http://www.mailope.eus) atariaren bitartez.

## ARAIKO UDALAREN KOMUNIKAZIO KANAL BERRIA

Araizko Udalak komunikazio modu berri eta azkar bat eskaini nahi die herritarrei, ekitaldi, albiste, jakinarazpen eta ohar interesgarrien berri emateko. Eman beharreko pausoak:

1. Zure mugikorrean kontaktu berri bat sortu (InfoAraitz izenarekin adibidez) eta 674 366 920 zenbakiarekin.

2. WhatsApp bat bidali kontaktu horretara, zerbitzura gehitzen zarela adieraziz.

Sistemak gehitu egingo zaitu eta Udalak sortzen duen informazioa jasoko duzu.

## EKAINAREN 7AN AMAITUKO DA ARALAR UDAL MUSIKA ESKOLAN IZEN EMATEKO EPEA



Aralar Udal Musika Eskolak datorren ikasturtean izen emateko epea ireki du. Ekainaren 7an izanen da azken eguna. Etxealdia ez da oztopo izan ikasleek euren musika klaseak jasotzen jarraitzeko eta hilabete hauetan klaseak online eskaintzen ibili dira Aralar-ko irakasleak. Gainera, musika eskolak lan egiten duen eskualde osoko 106 herritarren parte-hartzearekin Pier Paul Berzaitzen "Baratze bat" abestia grabatu berri du.



## LEKUNBERRIKO LORE ETA LANDAREEN II. AZOKA EKAINEAN

Joan den hilean ospatzekoa zen Lekunberriko Lore eta Landareen II. Azoka ekainean egitea aurreikusuten dute antolatzaileek. Oraindik data zehazteke dagoen arren, beharrezko segurtasun neurriak hartuko direla diote antolatzaileek. Urtero bezala, lore eta landareen zaintza, ezaugarri eta onurak profesionalen eskutik ezagutzeko aukera izanen da.



## UDARAKO LUDOTEKA ETA TAILERRAK, BERTAN BEHERA

COVID-19 pandemiak sortutako egoera dela eta, aurtengo udan Larraungo eta Lekunberriko haurrentzat antolatu behar ziren ludoteka eta tailerrak ez dira eginen. Antolatzaileek (Gizarte Zerbitzua, Euskara Mankomunitatea, Kirol Mankomunitatea eta Larraungo eta Lekunberriko Udalak) azkeneko aste eta egunotako berrien zain egon dira, aukera guztiak aztertzeko.

Gaur egun dauden datuekin, krisia kudeatzeko egiten diren aurreikuspenekin, eta datozen aste eta hilabeteotan oraindik ere hartu beharko diren segurtasun neurriekin, uste dute ez dagoela bermerik, ezta ziurtasunik ere, udako jarduera antolatu ahal izateko. Are gutxiago ongi, egoki eta modu asegarri batean antolatzeko.

Horrek guztiak beste behar baten premia ekarri du: gurasoak lanean dauden bitartean etxean gelditzen diren seme-alaben zaintzarako zerbitzuaren beharra.

Euskara zerbitzuak udako aisialdi jarduerarako begiraleak kontratatzeko lan poltsa osatu du eta zerrenda horretan bada gazte talde bat prest lan horretan aritzeko. Euskara zerbitzuak kudeatuko du zaintza zerbitzua eta bere egitekoa familiak eta lanean arituko diren gazteak harremanetan jartzea izanen da. Lan baldintzak ( iraupena, ordutegia, soldata, zenbat ume..) familien eta langilearen artean adostuko dira.

Hortaz, zerbitzuaren beharra duten familiek baita lanean aritu nahi dutenek ere Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri behar dira: 948 504 400 / larbeleareuskaraz@iparmank.eus



## NORTZUK DIRA LARRAUNGO DANTZARI HAUEK?

Honako argazki hau 1930. urtean Iruñeko zezen plazan ateratakoa da. Larraungo dantzari taldea da. Ondare Kultur Taldeko kideek laguntza eskatu digute bertan ageri diren herritarrek identifikatzeko. Aurpegi horiei izen-abizenak jartzeko gai izanen zinateke? Eta bakoitza zehazki Larraungo zein herritakoa zen?

# Hamaika eta bi

Azkeneko Mailopeko alean Leire Aranburuk orrialde hauetan idatzi zuenak pentsakor utzi ninduen. Eta ondorio argi (ia) bakar bat atera dezaket: bai, irakaspena aterako dugu guzti honekin. Askatasunik izan ote dugun (edo badugun) egoera honetan? Erantzuna bilatu ezinik nabil eta ene zalantzak ditut "normalitate berriak" ere askatasunik ekarriko ote digun.

Ingurua zenbakietan irakurri dugu azken bi hilabeteotan: hildako kopurua, kutsatuak, egunak, berrogei, faseak, bat, bi, hiru, lau, urtebetetzeak, kilometro bat, metro eta erdiko distantziak...

Nire egunerokoa ere zenbakietan ulertzen hasia naiz dagoeneko, baina gehien errepikatzen dena hamaika da. Hamaikatan erori naiz eta beste hainbestetan altxatu. Negar ere egin dut, hala ere momentu irribarretsu gehiago gogoratzen ditut. Hamaikatan sentitu naiz indartsu, esker oneko, gorabeheratsu, ni. Egia da. Beste batzuetan desesperazioak jan nauela; nahi gabe, edo nahita egoerak bultzatuta.

Etxera ere bidaiatu dut hamaika bider, WhatsApp bidez izan bada ere. Urte eta erdi da baina, etxekoan besarkadak birtual bihurtu zirenetik. Eta askorentzat ematen du orain bakarrik ditudala faltan.

Hala ere, hamaika baino, argiago dudan zenbakia bi da. Bi izan baitira testu hau idazterako pasa ditudan

hilekoaren zikloak. (Zer uste zenuen orain-



goan gaia alde batera utziko nuela ala?).

Eta bai, badu loturatik. Uste baino gehiago eragin dezake egoera honek eta eragin zuzena edukiko du, besteak beste, gure zikloan. Inguruarekin etengabeko kontaktuan gaude eta, nahiz eta guk bere horretan ez sentitu, zikloa bezalako termometro naturaletan nabaritu dezakegu gure gorputza estresatuta dagoela.

Esaterako, nire kasuan aurre-menstruazioak gogor jo nau azken honetan. Are gehiago, sekula ez ditut halako gorabeherak sentitu. Nik ez nuen estres hori identifikatzen, baina gorputzak bai eta nola azaleratu dezakeen? Fisikoki eta mentalki okurritzen zaizkizuen modu anitzetan: pikorrak, artikulazioetan mina, buruko mina... baina ezegonkortasun emozionalak ere estres hori islatu dezake, nire kasuan bezalaxe.

Ez du zertan hala izan behar; ba-

liteke ziklo luzeagoa edo motzagoa eduki izana konfinamenduaren hila-bete hauetan. Edo mingarriagoa agian.

Honekin ez dut esan nahi aguantatzea besterik ez zaigula tokatzen. Argi izan behar dugu gorputza sentikorra dela eta gure egoera pertsonalak zuzeneko eragina edukiko duela. Orduan ezinbestekoa dugu egoera eta sentimendu bakoitza identifikatzen ikastea eta ahalik eta errespetu handiena erakustea gure gorputzarekiko.

Ez dut nire burua zigortuko triste sentitzen naizelako: egoera ulertzeko ahaleginak egiten ditut. Amorrua sentitzen badut, sentitzeko arrazoiak ditudalako izanen da. Inoiz baino hiztunago, maitekorrago... banago, zergatik uko egin? Sentimendu eta emozio guztiek dute zergatia eta horretan sakontzea izanen da gure lana. Eta, benetan diotsuet, sekulako bidaia intentsu zein lilurgarria izan daiteke!

# Kontaktua ona da

Kaixo irakurle. Nork esango zigun orain hilabete batzuk Covid 19aren harira sortutako neurrien ondorioak halako gauza bereziak egitera eramango gintuztela: la etxetik atera gabe hilabete eta erdi egotea, kalera ateraz gero kontrol poliziala, munduan edonon egon daitezkeen birus "hiltzaileei" beldurra... Aipatu dizkiguten osasunaren inguruko ondorioez gain, ondorio ekonomikoak argi ikusten ari garen honetan, ez da psikologoa izan behar guran ondorio psikologikoak ere uzten ari dela ohartzeko. Nire irudipena da gure barruan gauzak gaizki kokatuta uzten baditugu, ideia desegokiak hor gelditzen direla denbora luzerako. Beraz, gerorako utzi gabe, segi dezagun ideiak bere lekuan kokatzen.

Kokatu beharreko hori, "babes neurrien" erabileran kontaktua inguruan sortu eta barneratu dugun ideiarekin loturik doa. Neurri berezi moduan, (eta oso berezi, historiko esango nuke...) besteak ez ukitzea eta bi metroara egotea ezarri da. Honek, gure barneari, kontaktua txarra denaren ideia ematen diola uste dut eta hori nolabait gure barruetan gelditu daitekeela denbora askorako (aurretik ere kontaktua kiko nahiko "tabu" baditugula uste dut, bat gehiago...) eta hori oso kaltegarria litzateke.

Pandemiaren kontu honekin, elkarki lotzen dizkiogu kontaktua eta arriskua, kontaktua eta kutsatzea, kontaktua eta beldurra, kontaktua eta... isuna! Beldurgarria da orain, baina beldurgarriagoa da gerora ere geratu daitezkeen sententzioa. Ez dakit



ze puntutaraino ohartzen garen hau egun batzuetarako bakarrik dela, neurri oso berezi gisa... Ohartzeko da ere falta izan zaigun momentuan, zenbat bota dugun faltan kontaktu hori. Horregatik aldarrikatu nahi ditut logikoa: Kontaktua ona da!

Nire haurtzaroan kontaktu gutxi izan dudala uste dut. Beldurra ere bagenion gure inguruan. Gero, sexuarekin lotua agertu izan da bereziki kontaktua, beste pertsona bat ukitzeak edo besarkatzeak esan nahi zuen gustuko zenuela edo zerbait nahi zenuela berarekin. Zorionez, lagun kontaktu-zaleak topatu nituen inguruan eta haiekin ohartu nintzen ni ere kontaktu-zalea naizela. Norbait besarkatzen nuenean lasaiago sentitzen nintzela bere inguruan, bazegoela elikadura oso garrantzitsu bat kontaktuan egote horretan. Dakidala azken hogeita bost urte hauetan ez dut gaitzik hartu kontaktuan

egoteagatik, aldiz bai mila poz eta zorion.

Beldurra ematen duen beste kontu bat "normaltasun berria" aipatzen denean da. Haserre jartzen nau honek. Uler dezaket egoera marraztu duten bezala marraztuta, fase bat egongo dela arrisku berezirik ez dagoela ikusi arte. Baina ez dut normaltzat onartu nahi normala ez dena. Ez badago lasaitasunik pertsonen artean, kontakturako aukera, besarkatzeko, etab. Hori ez da normaltasuna niretzat, kontrako!

Osasun krisi baten aurrean gauden honetan, zeinen gutxi hitz egiten den kontaktua, afektibitateaz, gertuko harremanez, etab. Zeinen onak diren osasunarentzako. Sententzioa dut denbora gutxian ideia asko pasatu direla gure buruetatik, (birusak txarrak direla, arriskua edonon dagoela, hiltzaile izan gaitzkeela...) onartu ditugula eta ez direla osotara sinesgarri edo fidagarriak. Nik, zalantzarik egon ez dadin, behin eta berriro errepikatuko dut: kontaktua ona da, kontaktua ona da, kontaktua ona da.

Beldurra nagusitu den garai honetan, pozak landatzen hasteko garaia ere badelako, zerk ematen eta zerk kentzen digun osasuna gero eta argiago dugulako. Jarrai dezagun bide horretan! Alderdi fisikoa garrantzitsua delako noski, jan, jantzi, lo ezinbestean... Baina bizitzaren zentzua, kontaktuan dago, harremanetan, zaintzan, maitatzean, laguntzean... Eta ez dezagun hori ahaztu. Jarrai dezagun gure normaltasun berria eraikitzen ba! Besarkada bana!



Zabal



# Gizarte hezitzaileak, alarma egoeran ere, bidelagun

*Aitziber Otamendi beteluarrak eta Arribeko Irene Matxinandiarenak Iruñeko pisu tutelatu batean egiten dute lan. Gizarte hezitzaileak dira eta azken hilabete hauetan lanera joaten jarraitu dute.*

## **Zein profleko pertsonekin egiten duzue lan?**

**Aitziber:** %65 baino gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak dira. Batzuek Down sindromea dute eta beste batzuek bestelako desgaitasun intelektualak. Gure pisuan gazteenak hogeitaz urte dituzte, gainerako gehienek 30-35 urte bitarte dituzte eta bada 57 urteko pertsona bat ere.

## **Pisu bakoitzean gutxi gorabehera zenbat lagun bizi dira?**

**Irene:** Gurean zortzi daude.

## **Eta zortzi pertsona horiekin zenbat hezitzaile zaudete?**

**Aitziber:** Astez hiru eta asteburuetan beste bi gehiago. Asteburuetan bi txanda egiten dira, goizekoa eta arratsaldekoa. Eta hezitzaileez gain, sukaldaria eta garbitzailea daude eta tarteka joan ohi den psikologoa.

## **Zein da zuen betebeharra?**

**Irene:** Gure eginbeharra, bertan bizi diren pertsonen behar edo eskaera desberdin eta ongizate fisiko, nahiz emozionala edo beste edozein lortzeko behar dituzten tresnak eskaintzea da.

**Aitziber:** Beraien alboan egoten gara. Bakoitzak behar ezberdinak ditu. Hala ere gure pisuan lan egitea plazera da, oso jatorrak dira denak eta erraza da beraiekin erlazionatzea. Gure helburua, pisuan bizi diren banakoen ongi-izatea hobetzea da.



Aitziber Otamendik faltan bota du Betelura ezin etortzea. Arg: utzitakoa.



Irene Matxinandiarenak ere ez dio lan egiteari utzi. Arg: utzitakoa.

Hori lortzeko, plan pertsonalizatu batzuk ditugu bakoitzaren beharretara egokituak. Adibidez, batek dutzatzerako orduan denboraren kontrola behar du eta horretarako kronometro bat erabiltzen dugu; beste bati erabakitzeke aukerak ematen dizkiogu, orain arte ez diotelako inoiz galdetu zer nahi duen edo zer gustatzen zaion; beste batek harreman egokiak izan ditzan laguntzen diogu, bai bere buruarekin eta baita bere ingurukoekin ere.

## **Independenteak izan daitezela da helburua...**


**Aitziber:** Bai. Goizetan tailerretara

edo institutura joaten dira eta etxeratzen direnerako gu euren zain egoten gara. Orokorrean nahiko independenteak dira eta hala behar du, baina batzuek dutzatzeke laguntza behar dute, bizarra mozteko, institututik bidaltzen dizkieten lanak egiteko, kalera irteteko... Zortzi horietako bakarra da gai kalera bakarrik irteteko. Oso independentea da eta bere lagunekin elkartu ohi da. Gehienak ez dira aurrez Iruñean bizi izan eta horrek ere eragina du, ez dituztelako kaleak horren ongi ezagutzen.

## **Zein izaten da zuen egunerokoa?**

**Aitziber:** Eguerdian joaten naiz eta bazkaldu bitartean beraiekin egoten naiz. Ondoren, egunerokoa erreparatu, diru kontuak eta agenda kudeatu eta lau eta erdiak aldera gainerakoak iristen dira. Merienda eman eta gero jarduerak izaten dituzten. Gimnasia, irakurketa hobetzeko ikastaroak etab. Asteazkenean ez zaigu denbora gehiegirik geratzen eta eguneroko errutinetan joaten zaigu denbora: meriendak, hurrengo eguneko motxilak prestatu behar badira, dutxak, afariak... Ez direnez ordu berean etortzen, arratsaldea konturatu gabe joaten zaigu. Ahal denean,





paseotxoak ere ematen ditugu, horrela hiria ezagutzeko, zeren ia denak, herrietan bizi dira. Denbora librean, musika, dantza, puzzleak eta mahai-jokoak egitea gustatzen zaie. Baina batez ere, asteburuetan, kanpoan meriendatzea eta paseotxoak ia derrigorrezkoak bihurtu zaizkigu.

### Lan aberasgarria izanen da...

**Aitziber:** Bai. Ni pozik joaten naiz lanera. Baditugu haserrealdiak ere eta zenbait egunetan nekatuta bukatzen duzu, baina besarkada bat ematen dizutenean indarberritzen zara.

### Koronabirusak nola eragin dizue lanean?

**Irene:** Gizarte zerbitzuak, esentzial gisa izendatu zituztenez, ez dugu gure lanaldia eten. Higiene eta prebentzio protokoloak martxan ditugu. Adibidez, gainerako hezitzaileekin txanda aldaketetan ez topatzea. Baina hala ere, nire ustez, oso zaila da arriskua guregandik aldentzea.

**Aitziber:** Alarma egoera asteburuan hasi zenez, gehienak euren etxeetan harrapatu zituen. Eta pisuan bi bakarrik gelditu ziren. Momentu honetan pertsona bakarra dago pisuan eta nahiko lasai gaude.

**Irene:** Pisuan dagoen mugimendu bakarra, langileen sartu-irteerak dira. Gu gara birusa sartu dezakegun agente bakarrak. Ni lasai nago, ez dut krisi honen beste biktima bat sentitu nahi. Lanera joaten naizen aldiro errealitateak kolpe bat ematen dit; bidean errepide hutsak ikusten



Pertsona bakoitzak bere beharrak ditu. Arg: utzitakoa.

ditut, mundua geld, Iruña beldurrez dardarka eta jendea aldentuta ibili da.

**Aitziber:** Nik hilabete eta piko eman nituen Betelura joan gabe eta bukaerarako zaila egin zitzaidan, astez Iruñean bizi naiz eta Betelura joateak pilak kargatzen dizkit. Nik ere nabaritu dut Iruñeko kaleetako aldaketa. Batez ere igande goizean, normalean goizeko zortzietan lanera joaten nintzenean beti bazen iskanbila eta orain izugarritzko isiltasuna.

### Eta beraiek nola bizi dute egoera hau?

**Aitziber:** Nahiko terraza handia dute. Eskaini izan diogu pisuan dagoen horri adibidez zaborra botatzeko aitzakiarekin ea kalera irten nahi duen, baina ez du beharrik sentitzen. Egia esan, harrিতa gaude zeinen ongi eraman duen. Normalean atletismoko klaseetara joaten zen eta orain bideo-deiak egiten

ditu lagunekin eta pisuan bertan ariketak egiten dituzte. Euren etxeetan dauden batzuk aldiz pisura bueltatzeko gogoarekin daude.

### Honek guztiak zein ondorio ekarriko dituela uste duzue?

**Irene:** Gure askatasunak bi mehatxu ditu; alde batetik, birusa eta bestetik, egoerari etekina ateratzen ari den gobernuak. Bizitza eta askatasunaren arteko banaketa hau onartzen badugu, pandemia hau pasa ostean, ondorioek bertan jarraituko dute. Estatuak babesturik, klase pribilegiatu batek, lana birtualki egiten du konfinamenduan, haien etxeetatik. Bitartean, azpi-klase batek, arrisku gehienak jasaten ditu. Arazo ekonomiko, politiko, gizarte, kulturalak... beti izan ditugu parean, forma desberdinetan egituratu eta kamuflatuta, eta ez dugu begiratu izan nahi. Birus honek, orain arte nola bizi izan garen erakutsi digu. Orain denon etxeotan sartu denean, zer?




**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**OKM**  
ABOKATUAK  
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



# Eta jairik gabe, plazak hutsik!

Nafarroa bigarren fasera sartu da jada, baina oraindik pertsonen arteko distantzia mantentzeak berebiziko garrantzia du eta hori bete ezin denean beharrezkoa da maskara jarrita eramatea. Gure jatetxe eta ostatuak euren atak irekitzen hasiak dira, baina oraindik asko falta da normaltasunera bueltatzeko.

Koronabirusaren deseskalatze fase honek udako jai eta ospakizunen atarian harrapatu gaitu. Dagoeneko, euskal hiriburuetak jaiak bertan behera uzteko erabakia hartu dute agintariek eta bien bitartean gainerrako zenbait herrietako jai batzordeak erabakia ezin hartuz dabilta. Imajinatzen zaila baita herrian festarik gabeko urterik.

Sanpedroak ditugu gurean ospatzen lehenak. Mugiroko Kontzejuak hartu du erabakia: 2020ko San Pedro jaiak bertan behera geldituko dira. Hala adierazi zien herritarrei joan den hilean etxez etxe bidalitako oharraren bitartez. Mugiroko Kontzejuak osasuna opa die herritar guztiei eta datozen urteko festak, ohi baino askoz hobeak izanen direlakoan dago.

Bestetik, Beteluko Jai Batzordeak ere bertan behera utzi ditu betelurrek hain estimatuak dituzten



festak. Beharrezko segurtasun neurriak betetzea ezinezkoa zaiela uste dute batzordeko kideek. Hala ere, egoerak onera eginen balu, ekainaren 29an, San Pedro Egunean, ospakizun txiki bat egitea aurreikusten dute, beti ere guztion osasunari lehentasuna emanez eta beharrezko neurriak hartuz.

Eta pixkanaka fasez fase normaltasunera bueltatzen ari garela ikusita eta oraindik hilabete baten bueltan egoera nabarmen hobetu litekeenaren ustearekin, azkara-

tearrek ez dute Sanferminak ospatzeko esperantza galtzen. Iruñean ezin izanen ditugu ospatu, baina ea Azkara-ten inoiz baino hobeak ez ote diren aurten!

Ezjakintasuna da nagusi aurten- go udan herriko plazetan izanen dugun giroari dagokionez. Ezin jakin festarik ospatzerik izanen dugun. Eta bitartean zain, batez ere plazaz plaza ibiltzen diren horiek. Jaietan ezinbestekoak ditugun protagonista horiek.

## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
ARBEONDO  
HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

**aitz  
berri**

edertasun  
zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

*Irailean, 9 urte beteko ditu Gabenara taldeak. Beste musikari askok bezala, aurten inoiz baino plaza gutxiagotan izanen dira.*

“Uda honetan inoiz baino gehiago entseatzeko aprobe txatuko dugu”



**Zer-nolako uda aurreikusten duzue?**

Dagoeneko uste dugu uda osoa etxean egonen garela. Maiatzaren hasieran Lesakan kontzertu bat genuen eta hil horren bukaeran Kataluniara joatekoak ginen. Bi emanaldiak bertan behera gelditu ziren eta ekainetik abuztura bitarte hitzartuta genituen gainerako emanaldiekin ez dakigu zer pasako den, baina pentsatzen dugu datak hurbildu ahala horiek ere bertan behera geldituko direla.

**Egoera honek momenturen batean taldearen ibilbidearen amaiera ekar dezakeela uste duzu?**

Ez, ez. Urte hau arraroa izanen da, baina aurtengo udarako hitzartuta genituen emanaldiak datorren urterako lotzen saiatuko gara.

**Entseiatzen jarraitzen duzue?**

Bost abesti berri ikasi genituen erreperitorioa berritzen joateko, baina momentuz distantzian ezin izan dugu askoz gehiago egin.

**Beraz, uda honetan, elkartzen uzten badigute entseiatzeko aprobe txatu beharko, ezta?**

Bai. Talde bezala horretarako aprobe txatu dezakegu. Bideoren bat egitea ere bururatu zitzaigun eta ahal izan genuen moduan taldeko kideok grabatu eta jarraitzaileekin partekatu dugu. Kontzertu bakoitza geneukan egunerako bideo bat prestatzea ere pasa zitzaigun burutik, baina grabatu eta dena editatzea lan handia da eta ez dakit horrenbeste egitera animatuko garen.

**Musikariak gainera, irakaslea ere bazara...**

Bai, aurtengo ikasturtean Beteluko

Sorgintxo Haur Eskolan nabil lanean eta hortxe gabiltza materiala eta jarduerak sortu eta familiei bidaltzen. Eta ikasle bakoitzari bere urtebetetze egunean bideo bat bidaltzen diegu haur eskolako argazkiekin sortua. Bestalde, familiei ere tarteka hots egiten diegu kontaktua ez galtzeko.

**Eta zuk, pertsonalki, zer moduz daramazu etxean sartuta egon behar hori?**

Nahiko ongi. Egia esan hemen, herri txikietan bizi garenok, zortea dugu. Ardiak, astoak, oilaskoak... dauzkagu, baratzea ere bai... Uste dut behin ere ez dudala etxean horrenbeste denbora eman eta amari oilaskoen abeltzian laguntzen nabil eta baratzean ere ikasten ari naiz.

**Denbora libreaz gozatzen ari zara orduan...**

Bai. Normalean trikitixa jotzeko denbora askorik ere ez dut izaten eta trikitixa jo eta kirol pixka bat egiteko ere aprobe txatzen ari naiz. Senideak, lagunak eta ingurukoak ongi eta osasuntsu daudela ikusteak ere lagundu egiten du eramangarriago egiten.



➤ **Julio Soto (Bertsolaria)**

“Plazaz plaza ibiltzen garenontzako, gure lanaren %99 erori egin da”



**Julio, zuek ere alarma egoerarekin batera, saio guztiak alde batera utzi zenituzten...**

Bai. Saioak bertan behera gelditzen hasi ziren eta gero ez genekien seguru noiz arte egonen ginen saiorik eman gabe. Eta luzerako zihoala ohartu ahala, apirileko eta maiatzeko saio guztiak ere bertan behera gelditu ziren.

**Aurtengo udan bertso saiorik izanen al da?**

Momentuz gure arloa erabat geldirik dago. Bertsozale Elkarteak antolatzen hasia da eta zenbait saio esperimental grabatzen gabiltza. Astero, Villabonan bi saio grabatzen dira. Bertsolariak hara joaten gara, segurtasun neurri guztiak betez eta publikorik gabe egiten dugu. Nahiko egoera zelebrea da, kamerariak maskarekin eta bertsolariok ere geure artean bi metroko distantziak mantenduz.

**Eta saio horiek nola eskaintzen dira?**

Saio horiek [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atarian eskaintzen dira. Horrez gain, herrietako plazetan saiorik egin ezin dugun arren, udalei bertsolariak kontratatze-ko aukera ematen ari zaie. Bertsolariok, saioa elkarteak Villabonan duen egoitzan grabatu eta ondoren, [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atarian eta udalerrri horretako tokiko hedabideetan eskaintze-ko. Modu horretan saioen bat izanen



dugu, baina oso-oso gutxi izanen dela. %5era iristen bagara...

**Euskarazko irratietan ere zenbait saio egin dituzue...**

Bai, "Etxetik etxera" izenpean ostiraleko telematikoki bertso jaialdi batzuk egin ditugu. Bertsozaleei egin nahi izan diegun keinua izan da. Bertsozale asko gelditu dira bertsoaz gozatze-ko aukerarik gabe eta etxealdiak jende asko bertsoak entzuteko gogoz zegoen. Bertsoen bidez konfinamendua eramangarriago egiten laguntzea

izan da asmoa. Eta horrez gain, bi edo hiru saio egin ditugu Nafarroako tokiko irratietan. Baina plazaz plaza ibiltzen garenontzako, gure lanaren %99 erori egin da eta udara begira ere oso itxura txarra du kontu honek. Festak bertan behera gelditzen ari dira eta jendeak ez daki zerbait antolatzerik izanen den.

**Elkarteak gehienak ere itxita daude oraingoz...**

Bai, eta irekiko dituzte, baina distantzia sozial hori mantendu behar da. Agian udalen batek pausoa emanen du eta gauzez festarik antolatuko ez duen arren, egunez distantziak errespetatuz aizkolariak eta bertso saioak bezalako ekintzak egitea erabakiko du. Horrela akaso plazaren bat salbatuko dugu. Baina saioz betetako uda, orain arte ezagutu dugun moduan, hori aurten behintzat desagertu egingen da.

**Bardoetako txapelketa ere saio batzuen faltan bertan behera gelditu zen... Datorren udazkenari begira zein txapelketa dituzue begi bistan?**

Udazkenean Bizkaiko eta Iparraldeko txapelketak dira jokatzekoak. Udaberri honetan ere, Bizkaiko kanporaketa fasea zen jokatu beharra eta ez dira egin. Beraz, erabakitzeko dago txapelketa horiekin zer gertatuko den. Asmoa egitea da, baina udazkenean berriz ere egoerak txarrera egingen duela diote eta ez dakit, ez du itxura onik.

**Eta bizitzen ari garen garai hauetan nola irudikatzen duzu halako txapelketa bat?**

Txertoa atera arte ematen duenez distantzia soziala mantendu eta bestelako neurriak hartu behar ditugu denbora luze batean. Beraz, ikusi egin behar da ikus-entzule gutxiagorekin egin litekeen, bertsolariok publiko presentzialik gabe egin edo bestelako zein baldintza-

tan. Elkartean horri bueltak ematen ari dira. Kontua da txapelketa horiek atzeratuz gero, Euskal Herriko Txapelketa ere atzeratu egingen litza-tekeela.

### Bertsolarien artean zein giro sumatzen duzu?


Kezka. Lehendabiziko asteetan deskantsatzeko eta beste zenbait lan egiteko aprobeztatu genuen askok, baina denbora aurrera doa. Eta noiz itzuliko gara plazetara? Noiz egin ahal izango dugu bertso-afari bat elkarre batean? Gainera, elkarre txikiak izaten dira. Bertsolariei ordaintzeko 40-50 lagunetik behar-koak bakarrik antolatze-ko aukera badago, baliteke elkarre batzuek bertsolariei ordaintzeko, hori bere gain ezin hartu izatea. Itxura du hilabete luzez bertso plaza ez dela lehengora bueltatuko eta bertsolarien artean kezka sumatzen da.



Bertsolariek oraindik ez dakite noiz izanen duten plazetara bueltatzeko aukera.  
Arg: utzitakoa.

### Ekonomikoki laguntzarik baduzue?

Bertsoetatik bakarrik ez da inor bizi. Bertsolari gehienek bigarren lan osagarri bat izaten dute eta jardun nagusia bertsoa dugunok ere bestelako lantxoak egiten ditugu, baina autonomoak izan ohi gara. Badira zenbait diru-laguntza, baina baldintza zehatz batzuk bete behar dira jaso ahal izateko eta bitartean autonomo kuota berdina ordaintzen ari gara. Bertsozale Elkartea ere, autonomo bezala gaituzan bertsolariontzako gutxieneko diru-laguntza ziurtatzeko ahalegine-tan dabil, baina zerbait sinbolikoa izanen da. Okerrena da ez dakigula noiz arte jarraituko dugun horrela eta bitartean eutsiko ote diogun edo beste lanen bat bilatzen hasi beharko dugun... Horiek dira gure kezkak!



## ➤ Sunpriñu Irratia: Aitor Irastortza, Garazi Moreno, Mikel Sagastibeltza eta Ainhoa Saralegi

### Sunpriñu, kontzientzia astintzera datorren irratsaioa

#### Nolatan sortu da Sunpriñu irratia?

COVID-19 gaixotasunak eragindako pandemiaren aurrean osasuna lehenesteko aitzakiapean hartu diren neurrietan ikusten genuen kontua ez dela hain sinplea. Gaixotasunak lehertuta, krisi ekonomiko, sozial eta politiko baten aurrean gaudela eta zentzu horretan hartzen ari diren erabakien atzean kalkulu politiko eta ekonomikoak daudela. Jakina da krisiak langileriak sufritu ohi dituela eta errealitate hori mahai gaineratu asmoz sortu da irratia, kolpatua izango den langile klaseari ahotsa eman asmoz. Hortik irratia azpi-izena, 'langileontzat jeikia'.

#### Nola entzun ditzake Sunpriñu Irrati-ko saioak?

Saioak YouTube plataformara igotzen ditugu, Sunpriñu irratia kanalaren bitartez. Beraz, bertan saio guztiak daude entzungai. Twitter, Facebook eta Instagram sare sozialetan ere ba-



gaude, gaur egungo hedapen bide ohikoena izanik. Eta WhatsApp bidez ere zabaltzen dugu audio formatuan.

#### Zein eduki mota lantzen dituzue?

Oraingoan sei saio egin ditugu. Bi ataletan banatzen dugu irratsaioa. Atal bat inguruko langileen egoeraren berri emateko, aurrez eginiko elkarrizketen eduki esanguratsue-na bilduz. Inguruko ostalariekin eta edadetuekin jarri gara harremanetan

bi saiotarako adibidez. Bigarren atala, errealitatearen analisi politikoa egiteko izango da. Orain arte, azkenaldiko egoeraren analisi orokorra eta kapitalismoaren oinarri buruz aritu gara labur. Hala ere, hirugarren saioan Irurtzun-Arakilgo Gazte Asanbladakoei elkarrizketa ere egin diegu, martxan jarri duten 'latzar Hadi!' dinamika azal diezaguten. Beraz, denborekin elkarrizketak edo atal berriak ireki daitezke.



➤ **Felix Otegi (Taxilaria)**

“Apenas eman dut zerbitzurik denbora honetan guztian”

**Taxilariok ez diozue lan egiteari utzi, ezta?**

Zerbitzu publikoa izanik, beharrik gaude lan egiten jarraitzea, baina aste hauetan guztietan oso dei gutxi jaso ditugu. Gainera, gure lanaren zati handi bat eskola garraioarekin lotuta dago eta horrez gain, sagardotegiak ere itxita, Aste Santurik gabe, Iruñera ere ezin jendea ohiko osasun probak egitera eraman. Apenas eman dut zerbitzurik denbora honetan guztian.

**Zuek autonomoak zarete...**

Bai, baina ezin diogu kuotak ordaintzeari utzi zerbitzua eskaintzen jarraitu beharra dugulako. Egun batean bidaia txikiren bat izan dut, beste zenbait egunetan bakar bat ere ez... Baina ezin duzu ezer egin, etxean zain egon baino ez.

**Uste duzu ekonomian izanen dituen ondorioak zuengan ere eragina izanen dutela?**

Gu kaltetuenetakoak gara. Gehienok eskola garraioaz gainera turismotik bizi gara. Udan, festak direla, errepideko asistentzia zerbitzuak, jendea hondartzara eramateko egiten ditugun bidaiak, diskoteketara edo kontzertuetara joateko bidaiak izaten ditugu. Eta orain arte behintzat bi bezero baino ezin nituen sartu berderatzi laguntzako taxian. Eta aur-



ten Aste Santurik gabe gelditu gara, martxoan eta apirilean sagardotegi denboraldiarekin ere lan asko izaten dugu, baina ezer ez. Eta Sanferminak ere bertan behera gelditu dira. Joan den egunean adibidez, Donostiatik Irurtzuna hiru pertsona eramateko deitu zidaten eta ezezkoa eman behar izan nien.


**Azken krisi ekonomikoa baino gogorragoa izanen delakoan zaude...**

Bai, turismoaz bizi garenontzat behintzat gogorragoa izanen da. Nik Irurtzungo Plazaola Hoteleko bezeroekin lan asko izaten dut nor-

malean, eta orain ez dabil hara eta hona ibiltzen den komertzial bakar bat ere.

**Eta zuen kasuan, zein da jarraitu beharreko protokoloa?**

Maskara jantzita ibili behar dugu eta bezero bat autotik ateratzen den bakoitzean eserlekua, gerrikoa eta atek desinfektatu beharra ditugu.



**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK, KOPA, BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILA LAGUN


Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea, 21. nabea 31870 Lekunberri Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarraun@gmail.com



# Geldialdiaren ondotik, bertako ekonomia suspertzen

Koronabirusak sortutako osasun krisialdiak herritar asko lanik egin ezinik utzi ditu zenbait astez. Horien artean ostalariak, ile-apaintzaileak, artisauak... Horietako batzuk pixkanaka lanean hasi dira berriro ere, baina beste batzuk oraindik ez dakit noiz bueltatuko diren. Egoerak onera egin badu ere, berriro kutsatzeko arriskua handia dela diote adituek, horregatik denen buruhauste handiena bilakatu da neurri berrietara egokitzea.

Lekunberriko Udalak sustatuta LM Merkatarari eta Ostalarien Elkarteak sortu da. Hainbat hilabeteko lanketa izan da eta koronabirusak horrelako elkarte baten beharra nabarmenago egin du. Dagoeneko Lekunberri eta Larraungo 31 establezimendu eta zerbitzu egin dira elkarteko bazkide.

M<sup>a</sup> Jesús Ayestaran elkarteko lehendakari izendatu dute: *"Egoera zail honek gure arteko harremana estutu du, batu egin gaitu. Ia egunero jasotzen dut elkarteko kideren baten deia, arautegi berriari dagozkion zailantzekin batez ere"*.

Larraun ibarreko elkarteak da. Bere siglek Lekunberri eta Larraun Mugimenduan daudela adierazten dute eta, beraz, bertako nahiz in-



31 bazkide ditu dagoeneko elkarteak. Arg: Labrit.

guruko merkatarari, ostalari eta zerbitzuak egin daitezke bazkide. M<sup>a</sup> Jesús: *"Sare bat sortzeko lan egin nahi dugu, bertako elkarbizitza eta lana sustatuko dituen. Herritarrek bertan bizi eta kontsumitzea nahi dugu"*.

Eta horretarako, sare sozialen bitartez, hainbat bideo labur zabaldu dituzte, bertako ostaluetan kontsumitzera animatuz eta establezimendu eta zerbitzuei buruzko xehetasunak ezagutzera emanez.

Asko baitira eta batzuetan kanpora jotzen dugulako zenbait zerbitzuren bila bertatik bertara eskaintzen dizkigutela jakin gabe.

Koronabirusak elikagaiak bertan erostera behartu gaitu, eta kasu batzuetan ohitura


hori indartzeko balio izan du. Lan-detxeak eta beste zenbait zerbitzuko ordea, galera handiak izan dituzte udaberri honetan.

M<sup>a</sup> Jesús: *"Jasan dugun geldialdi ekonomikoaren ondotik, orain inoiz baino garrantzitsuagoa da bertako ekonomia indartzen laguntzea, batez ere geure ibarrekoa. Ea denen artean bertako denda, ostatu eta zerbitzuak bizirik mantentzea lortzen dugun"*.


Hurrengo orrialde hauetan Larraun ibarreko, nahiz Araitz eta Bete-luko hainbat herritar elkarrizketatu ditugu euren egoeraren berri izateko.



Bertako denda, ostatu eta zerbitzuei bultzada ematea da elkartearen helburua



➤ Jack Gargali (Kantinako arduraduna)



“Baikorrak gara”

**Nola bizi izan zenuten Kantinearen itxiera?**

Lekunberri nahiz Larraungo Udalek lehenbailehen udal eraikinak ixtea erabaki zuten, gainerako herritarrek ere ixteko pausoa eman zezaten eta horrela birusarengandik denok elkar babesteko. Berehala itxi genuen, baina asteburu horretarako erreserba asko genituen eta elikagaiak galtzen ez uzteko eramateko eskariak egin genituen. Baina martxoaren 14an alarma egoera iragarri ahala itxi egin genuen guztiz.



**Eta noiz ireki zenuten berriro?**

Guk maiatzaren 5ean ireki genuen. Irekitzen lehenak izan ginen herrian eta egia esan espero genuena baino askoz ere lan gehiago izan genuen. Uste dut jendeak kozinatzeke gogo gutxiarekin zegoela! [Kar, kar].

**Zein prebentzio neurri hartu dituzue Kantinean?**

Guk hegoaldean dugun terraza txikian 16 lagun inguru sartu ohi dira normalean eta orain gehienez zortzi edo bederatz pertsonak baino ezin dute egon. Beste aldeko terraza aldiz handiagoa da berez, mahaia bata bestearengandik aski banatuta egoten dira. Horrez gain, bezero bat joaten den aldiro mahaia eta aulkiak guztiz desinfektatu beharra ditugu. Eta barruan ere, mahaia berrantolatatu ditugu.

**Zuen kasuan lokalak aski espazioa dauka, ezta?**

Bai. Gainera hiru sarrera ditu eta barruan zerbitzua ematen hasten garenean ate bakarretik sartzeko aukera emanen dugu eta beste ate bat irteteko. Horrela, bezeroak gurutzatu ez daitezten.

**Eta uda nola joanen dela uste duzue?**

Momentu honetan lan asko daukagu. Esan dezakegu lehen etortzen ez zen hainbat herritar ere etortzen hasi direla. Eta bazkaldu eta afaltzeko eskariak ere jasotzen gabiltza aste honetarako eta hurrengorako. Hori ikusteak animatu egiten gaitu. Ez dakigu zer pasako den, baina baikorrak gara. Estatu mailako turismoa izanen dugu gehien bat eta esanen nuke

batez ere inguruko probintzietatik etorritakoak.

**Bihar Kantineara joan nahiko banu aurrez abisatu beharko nuke?**

Ez. Zerbait hartzeko da beharrezkoa, normalean lekua izaten dugulako. Hala ere, bazkari eta afarietarako erreserba egitea gomendatzen dugu, azkarra go betetzen delako. Orain bezeroak eseri aurretik itxaron egin behar dute eta Kantineko langileoi abisatu. Dena desinfektatzen ibili behar dugulako. Kontrol zorrotza daramagu. Bezero guztiek eskuak desinfektatu ditzan saiatzen gara. Langile guztiok formakuntza jaso behar izan dugu eta denok maskara eta eskularruekin gabiltza lanean. Pixkanaka bagoaz ohitzen. Ahalik eta hoberen egiten gabiltza.

**ASEGURU AHOLKULARIAK**  
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**NEKAZARI, S.L.**  
Kubota  
STIHL  
ANTONIO CARRARO


Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazaris@hotmail.com

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com



**➤ Iñaki Gonzalez (Lekuonberri Tabernako jabea)**

## “Guretzako garrantzitsuenak herritarrak dira”

**Iñaki, zuek ere itxita izan duzue taberna zenbait astez...**

Bai, gu ere etxean egon gara eta ondoren tabernara joaten hasi ginen garbiketara lanak egitera. Lehen fasean sartu ginenean eramateko eskariak egiten hasi ginen, baina oso pixkanaka hasi gara lanean.

**Eta jendea ausartzen al zen eskariak egitera?**

Bai, bai, eskariak izan ditugu lehenengo egunetik eta bezeroak oso pozik. Egoerara egokitu behar izan gara, bezeroei txandak ezarriz etab. Baina nahiko ongi moldatu gara.

**Kanpoaldean mahai gehiago jarri dituzue, ezta?**

Bai, udalak baimena eman digu terraza pixka bat zabaltzeko. Guk nahiago izan dugu barruan zerbitzua ematen hasteko baimena izatera itxaron taberna irekitzeko, bestela ez zuelako merezi.

**Eta udara begira zein aurreikuspen dituzue?**

Guretzako garrantzitsuenak herritarrak



dira. Eurek bertan kontsumitzea. Izanen da tartean koronabirusa dela eta lana galdu edo diru sarrera gutxiago duena, baina ahal dutenek behintzat lagun diezagutela gustatuko litzaiguke. Bestalde, pentsatzen dut asteburuetan pixkanaka Iruñea aldeko eta Gipuzkoako jendea etortzen hasiko dela. Eta udan nire ustez gehien bat inguruko turismoa izanen dugu, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkide-

gokoa. Ez dakit Madril edo Kataluniako jendea etortzera animatuko den. Landetxeak nahiko beteta daudela entzun dugu eta horrek lasaitu egiten gaitu.

**Zein babes neurri hartu dituzue?**

Lokal osoa desinfektatu dugu. Tabernaren sarreran eta komunetako irteeran desinfektatzeko produktuak jarri ditugu bezeroen eskura, baita oinetakoak desinfektatzeko alfombra ere. Barra itxita daukagu eta mahaietan bakarrik zerbitzatzen dugu. Gainera mahaien arteko distantziak ere handiagoak dira orain. Eta langile guztiok maskarekin eta bestelako babes neurriekin ibili beharra daukagu. Sukaldean ere inoiz baino kontu handiagoarekin, produktuak iritsi ahal ahal den guztia desinfektatzen.

**Zuek ere baikor al zaudete?**

Bai, ze erremedio! Tabernaren kanpoaldean zein barrualdean bezeroentzako jarraibideak azaltzeko kartelak begiratzen gabiltza eta egoera berrira egokitzen. Berrito ere martxan jartzeko gogoz gaude.

**➤ Oihana Goikoetxea (Apeztiberri Landetxea)**

## “Jendea hasi da irailerako erreserbak egiteko deitzen”

**Landetxeko erreserba asko bertan behera gelditu zaizkizue...**

Bai, Aste Santuetarako eta udaberriko asteburu askotarako erreserba genuen eta hutsik gelditu zaigu landetxea.

**Eta orain mugimendurik nabaritzen hasiak zarete? Hasten da berriro nabaritzen edo oraindik ez dabil jendea deika edo?**

Bai, jendea hasi da irailerako erreserbak egiteko deitzen. Abuztua hartuta genuen aurrez eta uztaileko bi erreserba ditugu, horiek mantendu egin dira.

**Uda honetan atzerrira gutxiago irtengo garelako diote. Zuentzako****onuragarria izanen dela uste duzu?**

Guk udan ez dugu arazorik izaten betetzeko. Kalte handiena udaberriko hilabete hauetan egin digu. Abuztuan normalean berehala betetzen da eta udazkenean ere uste dut ez dugula arazorik izanen. Jendea ateratzeko gogoarekin dagoela uste dut. Gainera, aste hauetan euren erreserba bertan behera utzi behar izan dutenek beste data batetan bueltatzeko interesa erakutsi digute. Hala ere ezin gara kexatu. Nik lasai eraman dut. Okerrago pasa izan dute gaixorik egon direnak edo metro karratu gutxitan bizi direnak.



➤ **Camino Garralda (Ekoizlea)**

## “Gogorra izaten ari da”



**Camino, zuk zenbait urte daramatzazu sendabellarrekin egin-dako produktu naturalak ekoiztu eta saltzen. Plazetan eta azoketan saltzen jarraitzen duzu?**

Ez, geldi nago hau guztia hasi zenetik. Nafarroan berriro ere asteroko azokak egiten hasi dira herri askotan eta elikagaiak saltzen dituztenak lanean ari dira. Baina nik kremak eta olioak saltzen ditut eta ezagutzen ez badute, ia beharrezko bihurtzen da

horiek usaindu edo ukitzera. Ez da horren erraz saltzen. Berdina gertatzen ari zaie larruarekin edo bestelako materialekin lan egiten duten artisauek askori. Bezeroek produktuak ukitu ezin badituzte...

**Zein azoketara joan ohi zinen?**

Adibidez astero Leitzako azokara joaten nintzen eta asteburuetan txoko ezberdinetan antolatzen ziren azoketara. Azokak egitea baimendu di-

tuzten arren, ez naiz joan. Garraioak ere gastua dauka eta momentu hauetan ia ezinezkoa da halako deus saltzea. Abenduan, urtero, azoka bat antolatu ohi dugu Burlatako eraikin publiko batean, baina orain halako lekuetan sarrera mugatu behar badira zaildu egingen du. Guk jendetza mugitzen den lekuetan saldu ohi dugu.

**Eta zer moduz daramazu egoera zail hau?**

Ez oso ongi. Txakurrak paseatzera ateratzen naiz, baina ni berez asko mugitzen naiz eta etxealdia eta lan falta gogorra izaten ari da. Ez da erraza, laguntzak eskatu behar izan ditut. Ea hau guztia lehenbailehen pasatzen den, baina artisauek urtea galdutzat ematen dugu. Pentsa Sanferminetan eta beste hainbat herritako festetan eta antolatu ohi diren artisauek azoketan saldu ohi den guztia!

➤ **Eleni Tome (Ile-apaintzailea)**

## “Den-dena desinfektatu behar da”

**Maiatzaren 6an ireki zenuen ile-apaindegia berriro. Zer moduz ari zara moldatzen?**

Nahiko ongi. Hasieran urduri, baina jendeak oso ongi erantzun du. Denek pazientzia handiarekin hartu dute eta inor ez da kexatu maskara eta bestelako neurriak bete beharragatik.

**Eta lehenbiziko egunetan lan asko izan zenuen?**

Itxaron zerrenda bat egin nuen aurrez eta pixkanaka hitzorduak lotzen hasi nintzen, nahiko ongi moldatu naiz.

**Zeintzuk dira hartzen zabiltzan neurriak?**

Sartu aurretik maskarak eta eskularruak jarri behar dituzte. Nik aurrez abisatzen diet horiek beharko dituztela eta eurek ekartzen ez badituzte



nik eskaintzen dizkiet erositako prezio berean. Ile-apaindegiaren sarreran alfombra bat jarri dut oinetakoak desinfektatzeko eta bigarren bat ez irristatzeko. Bezeroei gainetik plastikozko estalki bat jartzen zaie eta ekarritako poltsa, diru-zorroa edo txamarra plastikozko poltsa

batean sartzen dut. Desinfektatzeko gelak non-nahi dauzkat eskuak garbitzeko. Eta Idoia langileak eta biok maskara, eskularruak eta bestelako babes neurriak jantzita ibiltzen gara. Bezeroa ile-apaindegitik ateratzen denean aldiz, berarekin erabilitako guztia, desinfektatu, zaborretara bota edo garbigailura joaten da. Orrazeak, guraizeak, aulkia... Dena desinfektatu behar da hurrengo bezeroarekin hasi aurretik.

**Beraz, bezero batetik bestera denbora tarte bat beharko duzu?**

Bai. Hasieran ordu erdi ematen nuen, baina pixkanaka martxa hartzen hasi naiz eta orain ordu laurden batean egitea lortu dut. Oraingoz bezeroak banan-banan hartzen ditut. Ezin ditut bi bezero aldi berean hartu, nahiz eta bat itxoiten egon.



## Urriaren 21ean Lekunberrin amaituko da Espainiako Itzuliaren bigarren etapa

Badugu Espainiako Itzuliaren data berria. Abuztuaren 14tik irailaren 6ra arte egitekoa zen txirrindulari proba urriaren 20tik azaroaren 8ra bitarte egingen da. Irunen hasiko da 2020ko Itzulia eta Madrilen amaituko da. Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak egutegiaz gainera ibilbidea ere aldatu behar izan du. Hasiera batean, abuztuaren 19an bosgarren etaparen amaiera Lekunberrin ikustekoak ginen, baina aldaketan ondoren, urriaren 21ean iritsiko da gura eta, Itzuliaren bigarren etapa izanen da.

Berezia izanen da aurtengoa. Besteak beste, hiru jardunaldi gutxiago izanen ditu. Urriaren 21ean Irun eta Arrate arteko zatia egingen dute eta hurrengo egunean Iruñetik Lekunberrirainokoa, San Migel zeharkatuz.

Hala ere, baliteke hemendik urrira bitarte pandemiak berriro ere egutegian aldaketak eragitea.

## Arku Tiraketa Kluba sortu da Lekunberrin

Otsailaren hasieran, gaztetxoentzako arku tiraketa erakustaldia egin zen Plazaola Kiroldegian eta izan zuen arrakastaren ondotik, orain, lehen aldiz, Arku Tiraketa Kluba sortu dute. Kirolak berak eskatzen dituen segurtasun neurriak bermatzeko, hamar gaztetxo bakarrik arituko dira klubean lehen ikasturtean. Bederatzi eta hamaika urte artekoak dira. Uda partean Lekunberriko Udalak horretarako egokitutako belardi batean entrenatuko dute eta negu partean berriz, Plazaola Kiroldegian, beti ere beharrezko segurtasun neurriak ezarriko dira. Joseba Ordoki, Kirol Zinegotzia: *"Zenbait gaztetxok, nahiago dituzte, futbolaz edo pilotaz haratago, bestelako kirol diziplinak. Kasu honetan batez ere kontzentrazioa izugarri lantzen den kirola da arku tiraketa"*.

## Beti Kozkor igoera fasean da bigarren urtez

Alarma egoerak onurak ere ekarri ditu gurera. Espainiako Futbol Federazioaren Batzordeak 2019-2020ko denboraldia amaitutzat emanen dela iragarri du eta ondorioz, Beti Kozkorreko hirugarren mailako taldeak Play Offa jokatzeko aukera izanen du bigarren urtez. Liga amaitzeko hamaika partiden faltan eta hirugarren postuan sailkatu zegoela lortu du Bigarren B mailara igotzeko aukera. San Juan taldearen aurka jokatu beharko du datorren uztailaren 18an. Oraindik erabakitzeke dago ordea non jokatu duen. Ezohiko egoera dela eta futbol zelai neutro bat aukeratu baina finalaurrekoa nahiz finala jokatzeko.

## Fisioterapeuta behar du Beti Kozkor Kirol Elkarteak

Beti Kozkor Kirol Elkarteak fisioterapeuta behar du, astean, bi egunez, lanean aritzeko. Interesa izanez gero, jarri harremanetan [betikozkor@betikozkor.com](mailto:betikozkor@betikozkor.com) e-postaren bitartez.

  
**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
 ZURGINTZA OROKORRA  
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
 Telefonoa eta Faxa: 948507343  
[carpinteria@carpinteriaazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriaazpiroz.com)

**OGI-BERRI ALTZA**  
 Aralar kalea, 41  
 Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
 OKIN ARTISAUAK 948604884

  
 948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
 gasolindegia  
  
 Xabier Garmendia 629 350 099  
 Arribe-Atallu

# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Parramurrie

*Gorputze arimen ispiluet besteik ez dela esaten due; arraultze biltzeon oskola hauskorra. Gorputzek agoak bezin ongi dakila hizketan, baño dauneko inor gutxik asmatzeola gorputzen esanai kaso itten.*

*Parramurri gaiztoat ingoo akaso arraultze-oskola bi punttetatik orratzakin poliki-poliki zulatu eta zurrup!, arime borobildue traatzeon harrek. Parramurrie izan baititteke gaiztoa, tristea, goxoa, lotsatie, umile, bildurtie... arimek dauken jolasgurean araberakoa.*

*Parramurri bildurtiet, ittolarren parramurriet atea zaio emakumeai meikuek minbizie daukela esan dionean, baino eoteko lasai, minbizi klase horrekin 10etatik 7 sendatzen deela.*

*Parramurri alai ta jostariet atea zaio emakumeai udaberriko goiz freskoan basko bieran dailela, aurrenekoz kukue aittu donean. Parramurri goxoat atea zaio emakumeai koartoon ixil-ixilik sartu, tapakik lepoaño iyo eta semeai kopeteko ileak baztatu dizkionean.*

*Parramurri lotsatiet atea zaio emakumeai pauso motelean tapa-tapa heldu den itzalai beittu ta hainbeste udaberri joanaatik tripeko tximeletak zintzurrean sumatzen dittonean.*

*Parramurri lizun bat ateatzen zaio emakumeai eskatu bareko muxu bat jaso eta ordañetan itzalan belarriko jaki goxoi koxk ittea dienean.*

*Parramurri bihurriet ateatzen zaio kukuketan dailtzen umean bille hasi, eta ttikie atean atzean izkutatuta daula kontuatzean; Joandakoan maitasun eta miñez, parramurri tristeat ateatzen zaio emakumeai argazki zaharretako zauri berrik laztantzen ditton bakoitzean.*

*Aurtengo udaberrin parramurri klase guztik sentitzeko eta marrazteko beta izan do emakumeak. Bildurre sartu nahi izan due hezurretaño, baño bere arimek begitatie hitzeitue, ta bere begik pozez betetako parramurrie eakusten due maskaran gañean.*

## Momentu txikiei zaporea ateratzen



●● Mikel Hernandez



●● Andrea Etxarri

Kaixo Andrea!! Zer moduz?? Dagoeneko argi pixka bat ikusten hasi gara eta espero dugu denbora batean behintzat egoera kontrolpean mantentzea eta segurtasun neurriak hartuta baldin bada ere, bizitza sozialera pixkanaka-pixkanaka bueltatzea, beharra dugu eta. Hain zuzen ere, gaurkoan horri buruz hitz egin nahi nuke. Konfinamenduaren aurretik normalak ziruditen gauzek (afariak, zinemara joatea, parrandak, zeozer hartzeko gelditzea...) bat-batean egoera honetan garrantzia izugarria hartu dute.

Nafarroan behintzat, lehenengo fase honetan, gehienez hamar pertsonako bilkurak egin daitezke familiarekin, lagunekin... Duela hiru hilabete lagunekin nahiz familiarekin biltzea ohikoa eta normala zen, eta eskura genuen. Orain ordea, bi hilabete pasa ditugu mota hauetako bilkurak egin gabe, eta nire kasuan behintzat, baimena eman zutenetik momentu txiki hauei zaporea atera diet. Lagunekin elkartzea, barre egitea, zer moduz gauden elkarri kontaktzea... behar-beharrezkoak bilakatu dira. Ez dakigu zenbat iraungo duen krisi honek, denbora dezente seguruena, baina dudarik gabe gizaki garen heinean, ezinbestekoa dugu bizitza soziala, oraingoan distantzia neurriak errespetatu behar diren arren.

Bestalde, erreferentzia zuzena egin nahiko nieke haurrei eta aitona-amonei. Alde batetik, birus honen ondorioz, pertsona adinduekiko kontaktu fisiko zuzena ezin dugu izan, kutsatzeko arriskua oso handia delako. Hortaz, nire kasuan behintzat, pare bat alditan kaletik leihora agurtu eta amona ikustean, poztasuna nabaritzen zitzaion eta hori ordainezina da. Bestalde, haurrek ere aparteko txaloak merezi dituzte, etxetik irten ezinda geunden momentuetan erakutsi duten jarrerarengatik.

Zu nola bizitzen ari zara momentu txiki hauek Andrea??

Aupa Mikel! Egia da nire egoera pertsonala, testuingurua eta bizilekua dela eta, ez didatela hain gogor eragin koronabirusaren ondorioz hartu beharreko neurriek, baina kontziente naiz askorentzako oso gogorra izan dela bizi beharreko egoera. Hala ere, orain pixkanaka gustuko ditugun momentu txiki horiek gureganatzen goazela ikusita, egoera honetan ikasitako gauza batzuk gurekin geratzea nahiko nuke.

Batetik, etxean egon behar izateak, hau da, gure eguneroko azeleratua alde batera utzi beharrak, gauzak modu geldoago batean disfrutatzen irakatsi digu. Nire kasuan askotan berandu iristen nintzen etxera eta orain aldiz, arratsalde batzuetan lasaitasunez etxean gustuko zerbait egin, etxe-koekin hizketaldi luzeagoak izan edo jarraian beste zerbait egin beharko nuenaren sentsazioz gabe paseo lasai bat emateko aukera izan dut.

Bestetik, hemen bizi garenok, herri batean biziak dituen abantailak batzuk ikusteko aukera izan dugu. Arauak urbanokrazia batetik begira jarriak izan zaizkigun arren, herrietan dugun lasaitasun eta dentsitate baxuagoa den oparia ikusarazi digu. Ahaztu gabe, horrelako paraje bat aurrean ikusteak ematen duen arnasa.

Honetaz gain, eremu bilduago batean bizi behar izan dugu, hau da, gure herri edo inguru hurbilean. Honek kasu askotan gertuko zerbitzuguneetara jo eta kotxearekin ero moduan ibili behar ez izatea eragin digu, gertuko ekonomia bultzatuz eta dugun kontsumismo nahia baretuz. Gehiegi pentsatu gabe erosten edo egiten ditugun milaka gauzen artean batzuk hain beharrezkoak ez direla ikusarazi digu.

Nire ustez, askatasuna ongi sentiarazten gaituzten gauzak egiteko aukera izatea da, beraz, "askatzen" gaituztenean ere eutsi diezaiozun gustuko izan dugun horri, ez gaitzean tranpan erori, ez ditzagun aukerak betebeharrak bihurtu.



**URDULA ELKARTEAK ALDAZKO HARROBIARI BURUZ PROPOSATUTAKO MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DU LEKUNBERRIKO UDALAK:**

1- Lekunberriko Udalak arbuiazen du Aldazko lurretan, Urdula izenez ezagutzen den pajarjean, kokatutako harrobia ustiatzeko proiektua, Horgobisa enpresak gidatzen duena, eta Ingurumeneko Departamentuari eskatzen diogu espedientea iraungita dagoela dioen adierazpena helaraz dezan, Departamentu horrek eskatutako dokumentazioa ez baita ezarritako epearen barruan ez moduan entregatu.

2-Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu Lekunberriko Udala, proiektuak ukitutako entitate eta sektoreak eta alegazioak aurkeztu zituzten guztiak jakinaren gainean eduki ditzan uero eta, helburu horrekin, izapidetze, errekerimendu, aldaketa, urrats edo akordio oren berri eman dezan eta kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa helaraz dakigun.

3-Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu eremu honen aberastasun eta balio paisajistikoa eta kontserbazioa direla eta ingurumen-inpaktua adierazteko aurkez daitekeen proiektu oro, beti bide arruntetik egin dadin eta ez sinplifikaturik.

4-Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu Horgobisa enpresari exijitu diezaion bere garaian enpresa horrek berak burutu zituen hondakinak jaso eta uzteko eginkizunek kaltetu zuten eremua berreskuratzeko behin eta berriro egin zaizkion mandatu instituzionalak bete ditzan. Berreskuratze hori hainbat eta hainbat alditan atzeratu da etengabe aurkeztu diren luzapenen bidez eta egun ere atzeratua dago hasiera-datak ustiapen-proiektuaren bideragarritasunari edo bideragarritasun-ezaren mende jarri baitira.

5- Lekunberriko Udalak mozio honekin bat egiteko eskatzen die Larraungo Kontzejuei eta bailarako zein Nafarroako beste erakunde eta eragileei.

**Antsoenea**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZEA  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**ce consulting**  
empresarial  
ANA RAMOS MARTÍN  
GESTORIA  
666 939 332  
aramos@ceconsulting.es

**urrutia**  
enea  
etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia  
**ARRIBE**  
ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32

panaderia okindegia  
**GALBURUeco**  
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa  
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## Printzako Antzar jolasa eta Scape game-a

**PRINTZA!!** Hementxe daukazue Printzan sortu dugun jolasa zure ingurukoekin ongi pasa eta kirola egiteko!

**ARAUAK:**  
**DISBERTITZEA ETA DISFRUTATZEA!!**  
 1. Hautatu nor hasiko den jolasten idadioa bota eta zenbaki altuena ateratzen duena hasiko da!  
 2. Toketzen zaitzun laukien egitekoak badago burutu. Ez baduzu egitea lortzen lehen zeunden tokira bueltatu.  
 3. Helburugara iristen dena irabazlea izango da.

**JOLASA Ahatea**

**ZURE ARCI IZPIAK OSATUKO DU PRINTZA**

Ahate jolasa:



Scape game:



### LAN BILA

Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

### SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIROCA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 870 837 (Bixente).

Furgoneta salgai 3.500 eurotan. Citroen Berlingo 1.6 HDI 92cv. 2007. urtekoa. Lagunduriko direkzioa, itxiera zentralizatua, cd irratia, aire girotua, airbagak, alboko ate bikoitza, aire girotua, 264.000 km. Ongi zaindua, ez erretzailak, IAT urtarrilean pasata, olio eta filtro aldatuak, neguko pneumatiko berriak. Mantenimenduko faktura guztiak gordeak. 2 giltza-joko. Oherako altzaria, aukera gisa + 100 €. Harremanetarako: 677 755 147.

Ur berogailua salgai. Junkers berogailua, wrd11-2kme. Pn = 18.6 kW. Behartutako tiroa. Gas naturalerako, butanorako eta propanorako balio du. 4 urte ditu. Prezioa: 200€. Harremanetarako: 677 755 147.

### EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

MERAKTU TXIKIA

**TAXILON**

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

# URRUNTZE SOZIALAK

**BANANDUTA**

**KOMUNIKAZIOA**

**INOIZ BAINO GEHIAGO  
INDARTU BEHAR DA**

**KOMUNIKAZIO ENPRESEK  
BADAKITE NOLA**

[LAASOCIACION.COM](http://LAASOCIACION.COM)

**LAASOCIACIÓN**

Komunikazioaren aroan



MAILOPE